

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**2/2022 Foru Araua, otsailaren 16koa, 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 1ekoa, baliozkotzeko dena, onespena emateko energiaren arloko premiazko neurriei eta bestelako zerga neurriei**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko otsailaren 16an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

2/2022 Foru Araua, otsailaren 16koa, 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, otsailaren 1ekoa, baliozkotzeko dena, onespena emateko energiaren arloko premiazko neurriei eta bestelako zerga neurriei.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko energiaren arloko premiazko neurriei eta bestelako zerga neurriei.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**Artikulu bakarra.** Baliozkotuta geratu da otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko energiaren arloko premiazko neurriei eta bestelako zerga neurriei.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 16a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**